

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko ekainaren 9a


Egunkaria

Gehigarri honetan



Olazti • Sakanako I. Xake Txapelketa egingen dute asteburuan **Lesaka** • Bihar ospatuko dute Gazte Eguna, itxura aldatuta **Patxo Abarzuza** • «Liburuen merkatuan aldaketa sakona gertatzen ari da»

Aisiaren berri,



bost urtez


El Bolo Feroz aldizkariak bost urte bete ditu. Poltsikoan sartzeko moduko agenda hau Andres Martorell eta Victor Prieto kazetariak sortu zuten, Iruñeko aisiaren berri emateko. Kontzertuekin hasi ziren, baina gerora, bestelako ekintzen berri ere hasi ziren ematen: antzerkia, dantza, liburuak, jaiak, zinema... Eta hori guzia testu satiriko eta barregarritz inguratzen dute. Agenda bat besterik ez da El Bolo Feroz, baina asko irrika handiz egoten dira horren zain.



Olazti • Sakanako 1. Xake Txapelketa

Sakanako xakezaleak Olaztin bilduko dira asteburuan

Larunbat eta igandean, Olaztin, Sakanako Xake Txapelketa jokatu da lehen aldiz. Eskualdeko xake jokalariek elkar ezagutzeko aukera ezin hobea izanen dute bertan.



Xake txapelketa antolatu dute Sakanan kirol hau ezagutarazteko eta, ahal dela, xake taldea sortzeko.

• EGUNKARIA

A Makina bat tokitan ikusi ahal izan da txapelketa iragartzen duen kartela. Ezohiko deialdia, ez baitira arruntak gurean xakearen inguruko kontuak. Lehiaketaren antolatzaile Koldo Floresek esan duenez, xakea "ezezaguna" da Sakanan. "Sakanakook ez dugu ohitura handirik jokatzeko, noiz-behinkako partidak bakarrik", adierazi du. Hala ere, bada jende taldetxo bat urte batzuk jokatzeko daramana eta, bertan aukera handirik ez dagoenez, Iruñea aldera jotzen duena. Baina Sakanan beti izan dute taldea sortzeko asmoa, eta ideia hori lantzen ari izan dira.

Koldok aipatu duenez, Arbizu eta Etxarri-Aranatz inguruko jokalariek elkar ezagutzen dute, eta noiz-behinka elkarren kontra jokatzeko dute. Taldea sortze-

ko, ordea, jende gehiago beharko litzateke. Behar horrek bultzatuta, Sakanako txapelketa antolatzea bururatu zitzaion. Hala, lehiaketaz gain, xakearen inguruan giroa sortu eta jokalar berriak ezagutzeko aukera emanen du txapelketak. Txapelketa Olaztin egitea ere ez da kasualitatea. Aranzat aldeko jokalariek elkar ezagutzen zuten, Altsasu eta Olaztikoak tentatzeko, Burunda aldean antolatzea erabaki zuten, haiei erraztasun gehiago emateko asmoz.

Asteburukoa xake aktiboko txapelketa izanen da. Hau da,

erloju baten laguntzaz, jokalar bakoitzak hoge minutu izanen ditu partida jokatzeko. Maila ezberdinak ez da izanen, jokalar batzuk ezagutzen ez dituztelako. Txapelketa larunbat arratsaldean hasiko da, Olaztiko jubilatuen egoitzaren ondoko lokal batean. Larunbatean bertan lau partida jokatu beharko dituzte. Igande goizean, berriz, hiru. Oraingoan, hogei bat jokalarik eman dute izena, Sakanako Mankomunitatearen Kirol Zerbitzuan edo Olaztiko tabernetan.

Txapelketara joaten direnen artea zenbait animatuz

gero, taldea osatu eta udazketik aurrera lehiak sartuko lirateke. Esan beharra dago xake talde bat zortzi jokalarik osatzen dutela. Hala ere, hobe da gehiago izatea, hamabi gutxienez, ezustekoak tarteko, partidetarako zortzi jokalariek ziurtatuak izateko. Hala, txapelketa antolatzeaz gain, gaztetxoaren artean xakea ezagutarazten ari dira. Arlo horretan lan handiena Etxarriko Andra Mari ikastolan egin dute: bertako ikasleek xakean jokatzeko erakusten diete astero ordu batez.

→ Alfredo Alvaro Igoa

Basaburua

Hamaika herri, hamaika ekitaldi

Igandean bilduko dira bailarako biztanleak haien eguna ospatzeko, Basaburuko Eguna. Aurtengoa 21 aldia izanen da, eta aukeratu duten herria Igoa da. Ospakizun honetan izan den berrikuntza nagusia antolaketari dagokio. Izan ere, orain arte Ireber elkarteak hartzen zuen bestaren presaketaren ardura osoa, baina oraingoan Basaburuko Kultur Batzordeak hartu du bere gain.

Aldatu ez direnak ekitaldiak dira. Hasteko, goizeko 11:00etan, hamaiketako aterako dute Igoako pilotalekuan, goiz osoko ekitaldiei aurre egiteko indarra hartzeko. Gaztetxoaren gaztelu puzgarrietara joanen dira, eta eskualdeko eta inguruko kirolariek herri kiroltako proba konbinatuak eginen dituzte, sokatira barne. Arnasa hartzeko, eskulangileen postuak izanen dira ikusgai. Hor, aurtengo ikasturtean Jauntsaratsen egin den keramika ikastaroko ikasleek haien lanak erakutsiko dituzte beste eskulangilen artean.

Ondoren, bertsoen eta musikaren tarte etorriko da. Igoako bertsolari Angel Martikorenak Bittor Elizagoien eta Mikel Alzuarten laguntza izanen du bertso emanaldian. Bestalde, gaiteroek eta Arrosadiko zantzar txikiak herriko txoko guztiak alaituko dituzte. Eta azkenik, herri bazkarian, haraneko hamaika herrietako bizilagunak elkartuko dira 14:30ean. Bazkaldutakoan, dantzaldia izanen da ilundu arte.

→ Txari Eleta

ziutatea

ARITZ AGIRRE



G utxien espero duzun egunean... edozer gauza gerta liteke. Eta gaur, emakume berri bat naiz. Lehenengo maila bat-batean etorri zait nigana korrika eta aldarazi egin dit aurpegi: ederrago, garbiago, altuago ikusten dut neure burua. Zer izanen ote? Auskalo. Orain sei urte galdutako glamurra kausitu dut berriz ere gorri jantzita, datorren urtean izarren artean egonen garen seinale. Horrenbeste aldiz igogailuari begira egon ostean, Lotinak asmatu du, azkenik, zein botoi sakatu behar den igo ahal izateko. Konturatu gabe heldu zaigu lehenengo mailan egoteko ordua, amesgaiztoen artean. Izan ere, igogailura heldu bai, baina beherako botoi sakatu baitzuten Irigarai eta Benitez-ek bere garaian. Logroñesek egin antzera, jua, jua.

Zein koloretakoa den bizitza? Gorria. Ze usain

'In crescendo'

duten hodeiek? Golarena. Izerdi, besarkada eta garaipenaren gozo zapore samurra. Ospakizun gorri pintaturiko plaza eta karrikak ezin ahanzi, zentzurik hartu du orain bai nire bizitzak, instante batean, komerra erdiratu eta poloniarrek baloia lehenengo mailara bidali bezain pronto. Segundo horiek aski baitira tristuraren eta zoramenaren arteko muga estua zeharkatzeko. Eguneroko depresio eta miseriak uxatzeko nahikoa ei dira 90'.

Bi gol sartu eta listo. Ardo gorria bilakatu zuten Sadar bustitzen zuen euria, eta hunkiduraren fruitu bihurtu sufrimendu malkoak. Zalantzarik gabe, osasunazaleak baditu milaka aurpegi. Etsia, galdutako begirada, amorratua, etengabeko hasperenak sortutakoa. Eta horren ondoan, GOOOOOLarena. Gora-ko begirada, San Ferminen kapoteari so, megafoniak aztoratutako dantza eta jauzi kaotikoak eginez.

Stuttgarteko bandera mitikoa atera nuen armairutik, garaipena ospatzeko. Sekula ez dut erabaki hoberik hartu. Noizean behin, 90' aski baitira hiri osoa alaitzeko. Hiri osoa ibili zen baloia atzetik korrika, eta poloniar batek idatzi du berriz ere Osasunaren urrezko liburuan. Dena den, oroimen handiagoa dugunok, lehoien atzaparretan dagoena ere gogoan izanen dugu: Taxoaren laborategian sorturiko 20 urteko miraria. Bere agintea eta ausardia, baloia penaltiarene puntutxo zurian jartzeko tenorean.

Bemolekin hasi eta sostenituen artean amaitu zen besta. Do nagusian, mozketien alegerak markaturiko erritmoan, *molto vivace*. Lehenengo mailakoz izan gara beti, orain lehenengo mailan gaude. Berdegunean, Astrango bals-arekin batera, Turrillas maisuaren irrintzia hedatu zuten bozgorailuek. Oraindik ere bihotz gorria dauka herriak.

Lesaka •

Gazte Eguna, itxuraldatua

Koadrilen arteko jokoak eginen dira bihar, Gazte Asanbladak antolatuturik

Azkeneko urteetan
Lesakako Gazte
Asanbladak Gazte
Eguna antolatu izan
du. Arratseko rock
kontzertu handiaz
gain, egun osoan
ekintzak antolatu ohi
dituzte orain arte.
Aurten ez da
horrelakorik izanen,
baina Gazte Eguna
ospatu ospatuko dute.



Itxura aldatu
diote aurtengo
Gazte
Egunari. Rock
kontzertuaren
ordez,
gazteen
arteko jokoak
prestatu
dituzte
biharko, zaku
salto jokoak
kasu.

EGUNKARIA

ERABAT ITXURALDATUTA aurkeztu dute Lesakako Gazte Asanbladakoek aurtengo Gazte Eguna. Jende berria sartu da antolakuntzan, eta herriko gazteei zuzendutako besta antolatu dute biharko. Egitura aldatu baldin badiote ere, helburu nagusiei eutsiko die Gazte Asanbladak. «Gazteek antolakuntzan eta prestatutako ekintzetan parte hartzea da helburua», argitu du Iñigo Olaetxeak, Lesakako gazteak. «Orain arteko ereduak lan handia eskatzen zuen, batez ere arra-

tseko kontzertuak, eta emaitza polita bada ere, indarrak neurtu behar dira», gehitu du Olaetxeak. Hala, bada, aurtengoz bederen, herriko gazteentzat bakarrik antolatu dute ekitaldia.

Goiz-goizetik hasiko dira ekitaldiak. Patata-tortilla lehiaketa eginen dute Plaza Zaharrean, gero, guztiek, elkarrekin bazkaltzeko. Batzuek patata tortilla prestatzen duten bitartean, bertzeek pilota partidak jokatuko dituzte. Taldeen arteko txapelketa antolatu dute larunbat goizetarako Lesakan.

Arratsaldean, jinkana

Goizean prestatutakoa jan ondoren, bazkalondorako mus lehiaketa antolatu dute; hori ere koadrilen artean. Arratsalde partean mugimendua eramanez dute plaza ingurura. Gazte Olinpiadak egin nahi izan dituzte egun osoan, eta arratsaldeko jinkana izanen da proba nagusia. Zahato probarekin hasiko dira lehian: korrikalari batek plazari bueltak ematen dizkion bitartean bertze kide batek zahatetik edateari ekin beharko dio, eta edaten ari dena gelditzen denean laster-

ka doanak ere gelditu beharko du.

Zaku proba ere izanen dute: plaza alderik alde gurutzatu beharko dute, eta ondoren patinetan ibili, katxia urez bete eta Lesakako hainbat bitxikeriaren inguruko galderei erantzun beharko diete parte-hartzaileek.

Iluntzean karaokea izanen da. Afaria Arrano elkartearen eginen dute, eta afalondoa herriko bertsolariek kantatuko dute. Bestak arrats osoa iraungo du.

→ Jon Abril

Globaleitor (eta II)

Lehenengo esan bezala, Globaleitor, Modelnitatarorako Errobot Unibertsalista, nire aurrean nuen! Bere bi zelula fotobolitaikoak baliaturik segituan ulertu du ni, txistu eta tanborilen artean ibili ordez, nire zilbor etnikoaren soaldi luzeetan maitemindua ibili ordez, Internetera!, are gehiago, ingelesezko webguneak irakurtzera!, dedikatzen naizela. Beraz, amore eman eta zigorraren zain eseri naiz. «Globalizazioaren aroan...», hasi zait Errobot, «...ordenagailuen aroan, Interneten aroan, euskara aldarrikatzen dutenek kultura etnizista eta motz bati atxikiak daude». Nik baietz adierazten nion buruarekin, arrazoiak zuela, zigorra laburtzeko asmoz noski!, baina bera txapa guztia botatzeko programaturik dago, eta, inongo kasurik egin gabe, segitu du: «Nola ulertu, gero eta mundu globalagoan, herriko kanpandorrera begira egotea nahi izate hori? Nola da posible Interneten eta Baserriaren artean, Baserriaren hautua egitea!». Nik baietz beti, baina bera ez zen isiltzen, eta bukatzera zihoala jabeturik, ordenagailutik aldentzen hasi naiz, badaezpada ere. «Zeinen burugogorak zaretan!, zenbat eta zenbat gauza galtzen ari zaretan, agian betiko!». Bazetorren txaparen amaiera. Isilune bat egin da. Berunezko beso itzela altxatu du Errobot Pluralista-Multitoleranteak. «Hau da ERREALITATEA!» esan du, «beraz-eta, zu euskaldun zaren aldetik, ordenagailu hau, modem hau, Internetetik eta ingelesezko webguneetik adierazten duzun interes hori ezin daiteke erreala izan!». Eta hau esanda, besoaren kolpe itzelarekin nire Macintosh-a eta modema suntsitu ditu. Bukatzeko, «ea hurrengorako ikasten dugun errealagoak izaten!» batekin alde egin du. ●

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4**Bizkorrago + gazteago****L A R R E K O A F A R I A****2000ko ekainaren 9an, ostiralean 21:30ean****Atarrabiako Paz de Ziganda Ikastolan.****AFARI TXARTELAK:** 2700 pezetatan salgai, Xalbador eta Auzolan liburutendetan, Karrikiri Elkartearen eta Euskalerrria Irratian.**ANTOLATZAILEA: EUSKALERRIA IRRATIA ELKARTEA.**

Iratxe Monastegia, 45 - 13. • 31011 IRUÑEA (Nafarroa)


Tel.: 948 17 01 51 / 948 17 12 32 (publizitatea) - Faxe: 948 19 60 30 • e-mail: iruneko@arrakis.es



Otsokumea koskoru egin zaigu

El Bolo Feroz aisia aldizkariak bost urte egin ditu agenda eta testu satirikoak uztartuz

El Bolo Feroz 1995ko martxoan sortu zuten Andres Martorell eta Victor Prieto kazetariak Iruñeko aisiaren berri emateko. Kontzertuekin hasi ziren, baina, gerora, bestelako ekintzen berri ere eman zuten: antzerkia, dantza, liburuak, jaiak, zinema... Eta hauek guziak testu satiriko eta barregarri inguratu zituzten. Irudi du seriotasun gutiko argitalpena dela, baina fundamentuzko ekitaldiren bat non eta noiz den jakin nahi duenak hobe du *El Bolo*-ra jotzea.



'Bolotomiak'

EL BOLO FEROS AGENDA BAT DA, BAINA NON-ZER KOORDEnatuak inguratzen dituzten testuak barregarriak dira, satirikoak. "Victor eta biok horrelako gauzak egin izan ditugu beti", azaldu du Martorellek. "Navarra Hoy-n Navarraguay gehigarria egiten genuen, eta Radio Nacionalean, *El Plumero*. Orain, *El Bolo*-n, saiatzaren gara testu guztietan gure umorea sartzen".

Aldizkarian badira zenbait atal berez satirikoak direnak, hala nola *Kotilleos*, *Historia del Rokanró* edo *Bolotomia*. Azken horren egilea Victor Prieto da. "Orrialde solte bat zegoen betetzeko", esplikatu du. "Gai

bat eman zidaten, eta neurri zehatza. Eta jendea gustatu zitzaionez, errepikatu nuen". Bost urte hauetan argitaratu dituzten *bolotomiek* liburua osatu du Prietok. Bertan *El Bolo*-ren umorea ageri da bere gordintasunean; surrealista batzuetan, esperpentikoa bestetan. Prietok *Bolotomia* liburua aurkezpenean erran zuenez, *El Bolo*-ren zerbait guziak bildu ez dituzten "alferrendako" argitaratu dute liburua. "Ez da aldi batean irakurtzeko liburua, zenbait alditan leitu behar da, autobusean edo errenta aitortpenaren ilaran".



nean, eta Tahures Zurdosen managerra ere izan zen. "Orduan ikusi nuen zerbait falta zela kontzertuen berri emateko", adierazi du. "Kartelak ongi daude, baina funtzio mugatua dute, eta asko paratzen badituzu, jendea eragozten duzu. Beraz, asteazken batean jakin nahi banuen zer egon zen asteburuan, tabernaz taberna joan behar nuen kartelak ikusten".

Martorellek tabernetara jo zuen, ezagunengana, eta bere ideia paper batean erakutsi zien. "Oso ongi hartu zuten. Fotokopia moduan egiten hasi ginen. Inpresioa hobetu da,

baina zuri-beltzean egiten jarraitzen dugu".

Victor Prieto iruindarrarekin batera, 1995eko martxoaren 23an *El Bolo Feroz* aldizkariaren lehen zenbakia atera zuen Martorellek. Erran bezala, kontzertuen berri ematen hasi ziren, baina gero bestelako kontuak sartu zituzten. Lehen zenbakiak hogeitortzi orrialde zituen. Eta oso atal gutxi. "Nik ordutan ez nekien Macintosh bat erabiltzen ere", dio Martorellek. "Hau behetik sortu da, eta gutinaka beharrezko ezagupenak eta lanabes egokiak eskuratu ditugu".

El Bolo Feroz

¡VOTAS PA TODOS!
= VOTA =
= BOLO !!



Andres Martorell eta Victor Prietok 1995eko martxoaren 23an atera zuten *El Bolo Feroz* aldizkariaren lehen zenbakia. Bost urteotan Nafarroako aisiaren berri eman dute, modu zehatzean eta hagitz umore onean.

INAKI VERGARA

de batek deitu zuen galdetzeko ea non jotzen zuen. Eta beste behin, taberna batetik deitu zuten galdetzeko zein taldek jotzen zuen ostegunean tabernan bertan".

Ez dute informazioa jaso bakarrik egiten, antolatzaileei informazioa eman ere egiten diete, Martorellek esplikatu duenez: "Adibidez, areto batek erratan dizu talde batek hor joko duela egun batean. Baina talde horrek erratan dizu beste nonbait izanen dela. Eta guk abisua ematen diegu ados jar daitezten. Hori anitzetan gertatzen da".

El Bolo-k, agenda gehienak bezala, akatsak ditu. "Baina akats asko ez dira gure erruz agertzen", dio Prietok. "Azken uneko aldatetarik daude, eta ez digute deus esaten. Adibidez, galeria batek jakinarazten du erakusketa bat dagola, eta ordutegi bat ematen dizu. Baina aste horretan ordutegia aldatzen du udaberria sartu garelako. Eta hori jakinaraztea ahazten zaio. Eta akats hori hiru astetan dago *El Bolo*-n". Dena den, jasotzen duten informazio guzia kontrastatzen denbora asko ematen dute.

"Aparteko gauza"

Prietok dioenez, bost urte hauetako lana "gogorra izan da, baina baita polita ere". "Instituzio paraleloa sortu dugu. Jendeak ez badu *El Bolo* tabernako barran ikusten kezkatzen hasten da, urduritzen da".

"Adikzioa eragin" dutela dio Martorellek. Argitalpen gehienak urte baten buruan desagertzen dira. Bost urtetan hildako asko pasatu dira euren ondotik. *El Bolo*-k gutinaka erdietsi du bere lekua. "Eta bizirik irauten badugu da jendeak tabernetan edota musika dendetan *El Bolo* eskatzen duelako. Izan ere, balio handiagoa du bila aritu zaren horrek onahi aurkitzen duzunak baino. Zenbait argitalpen aurkitzen dituzu, leku guztietan daude, baina ez dute batere interesik. *El Bolo* aparteko gauza da. Jendeak badaki zein tabernatan eta zein dendatan auri dezakeen". *El Bolo*-n egiten dugun lana serioa da. Agenda serioa da. Baina emaitza ez da inolaz ere aspergarria.

→ Asier Azpilikueta



Andres Martorell:

Guk dugu informaziorik eguneratuena. Bost urteren buruan informazio iturriak ohitatu egin ditugu. Jendeak ezagutzen gaitu eta badaki noiz bidali bere informazioa. Hori da gure ondasuna, informazio iturrien sarea»

Kontzertuak, urtebetetzea ospatzeko

EL BOLO FEROS 1995EKO MARTXOAN AGERTU ZEN lehendabizikoz. Bosgarren urteurrena ospatzen ari dira hil honetan. Horretarako, nola ez, hainbat kontzertu antolatu dituzte. *Preparados, listos, jazz* zikloaren barnean, asteazkeneko jazz kontzertua izanen da O'Connor's tabernan. Hilaren 14an, Dixielangileak taldeak joko du; 21ean, Only Jazz Quartet talde-

ak, eta hilaren 28an, Mikel Andueza eta & Ramano Garcia Quartek. Kontzertu guziak 23:00etan hasiko dira, eta sarrera doan da. Ospakizunekin akitzeko, ekainaren 30ean Los Enemigos taldearen kontzertua izanen da Artsainan, 23:00etan. Ondoren, house jaia egingen dute.



Gipuzkoarako saltoa duela hiru urte eman zuten. "Ordurako, Bilbon nahi ez genituen bi seme jalo zitzaizkigun. Gure kalakoak ziren. Donostian antzekoa ez gertatzen, guk egitea erabaki genuen. Hiriburutik kanpo banatzen da *El Bolo*, Bidasoaldean eta Oiarzun aldean. Donostian ez, donostiarrak oso bereziak baitira".

Agenda aitzindaria

"Horrelako gauza baten beharra zegoen", nabarmendu du Martorellek. "Gure lekua lortu

dugu, behar-beharrezko bilakatu gara. Beste argitalpen batzuek gauza bera egingen dute, baina gu izan ginen aitzindariak. Guk dugu informazio eguneratua. Horretan ez digute irabaziko. Bost urteren buruan informazio iturriak ohitatu egin ditugu. Jendeak ezagutzen gaitu eta badaki noiz bidali bere informazioa. Hori da gure ondasuna, informazio iturrien sarea".

El Bolo-ren egileek diotenez, informazioa bilatzeko denbora asko ematen dute. "Eta batzuetan kontzertua emanen duen taldeak berak baino informazio gehiago dugu. Behin tal-

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Politikoki ez zuzenak? (I)

Badira euskal literaturan politikoki hagitz zuzenak izan omen ez diren egileak, hau da, Euskal Herriaren kontra egon zirenen ondoan lerratu omen zirenak; guztiarekin ere, eta euskal idazleak izan diren aldetik, interesekoak direlakoan gaude, eta haien lanak bederik ere ezagunagotu beharko genituzke



Cara al Sol ereserkiaren gaineko azken gorabeherak baretu dira azkenekoak, alabaina, Zegamako Juan Telleria ez da euskaltzaleok politikoki zuzentzat joko ez genitzakeen artean aipa daitekeen bakarra. Telleria honek Falangearen ereserkia ondu zuen 1934an, erderaz eta euskalduna bazen ere. Pasa den apirilaren bostean Estatuko ordezkari batek bi milioi pezetan ordaindu zuen enkante batean benetakoa ez zen ereserkiaren partiturrengatik, izan ere, benetako partitura Espainiako Editoreen eta Egileen Elkarte Nagusiko bulegoetan baitago. Liburutegi Nazionalen zuzendari berriak, Juaristi jaunak, jatorrizko partituraren kopia batekin konformatu beharko du; haatik, bere ezpaleko norbaiten testuak eskuratu nahi baditu hona hemen ideia gutxi batzuk.

Antonio Arrue Zarautz (Asteasu, 1903-III-26; Donostia, 1976-XI-17)

Lehenbiziko ikasketak Baztango Lekarotzen egin ostean, zuzenbidea Oviadoko Unibertsitatean burutu zuen. Comunión Tradicionalista Vasca alderdiko burua izan zen Gipuzkoan, baita alderdi bereko Batzar Nazionalen kide ere. 36ko gerratea irabazi zutenen ondoan izanki, Gipuzkoako diputadua izan zen Madrilgo Gorteetan. Euskal idazle bezala 1932an hasi zen bere lanak argitaratzen *La Constancia* izeneko argitalpenean, eta orduz geroztik *La Voz de España*, *Euskera*, *Euzko Gogoia*, *El Fuerista*, *Zeruko Argia*, edota *Herria* argitalpenekin ere kolaboratu

zuen. Bere ideiak gorabehera, lan handia egin zuen euskalgintzaren berpiztean frankismoaren garaian; Euskaltzaindia berrezartzeko euskaltzain oso izendatu zuten 1954an, eta berari zor zaizkio *Egan* aldizkari literarioaren agerpena —Aingeru Irigaraiarekin eta Koldo Mitxelenaekin batera zuzendu zuen— zein Julio Urkixo Euskal Filologia Mintegiaren sorrera.

Jose Artetxe Aranburu (Azpeitia, 1906-III-12; Donostia, 1971-IX-23)

Dudarik ez da Artetxe egilerik eztabaidatuenetakoa gertatzen dela egun. Familiaren egoera ekonomiko kaxkarra zela bide, gazte-gazterik hasi behar izan zuen lanean, eta ondorean erakutsi zuen erudizioa erabat autodidaktikoa izan zen. Gipuzkoako liburutegi probintzialeko liburutzaile izan zenak izkiriatu zuen gehiena erderaz egin bazuen ere, euskaraz ere zertxobait izkiriatu zigun zenbait aldizkaritan: *Yakintza*-n, *Argia*-n, *El Día*-n, *Egan*-en,

Aranzazu-n eta *Zeruko Argia*-n astero-astero zutabe bat idazten zuen —geroantzean bere seme-alabek honen bilduma liburu batean argitaratzeko sailoa egin zuten arren jatorrizko testuak argitartxeren batean galdu omen ziren—. EAJko

militantea, Gipuzkoa Buru Batzarreko idazkari izan zen 1934-1935 bitartean; 36ko gerratea hasi zenean Bilbora egin zuen eskapi atzerriratze-ko asmoz, baina halako batean, hobeto pentsatuz, erreke-teen filetan sartu zen, aunitzek oraino barkatu ez diotena, tartean Pako Aristi idazleak. Honek *Argia* aldizka-

riaren 1594. zenbakian *Jose de Arteché, traidor* izenburuko kolaborazio gogorra ateratu zuen, non Artetxeren lana mespretxuz baloratzeaz gain, honela zioen hartaz: "Arteché ez zen inoiz Gipuzkoako idazlerik onena izatera iritsi, ez, baizik eta gizatalde frankista, Espainiazale, klasista eta gauzak lehen bezala, hau da, haien eskuetan ongi lotuta mantentzea nahi zuenarentzat idazlerik egokiena, besterik ez (...). Ezetz, ez diogula Artecheri lekurik egin behar, fatxa bat zelako, geure iraganen alderdirik zantarra defendatu zuelako, idazle kaxkarra zelako".

Eladio Espartza Aginaga (Lesaka, 1888-II-18; Lesaka, 1961-III-23)

Apezgaitegia 1909an largatu ostean, kazetari jardun zuen Madrilgo *El Correo Español* eta *El Pensamiento Navarro* egunkari karlistetan. *La Voz de Navarra* egunkari jeltzalean zuzendari lana bete zuen 1923-1925 bitartean, hau da, Lesakako idakaritza erdietsi zuen arte. *Diario de Navarra*-n goizean goizik hasia zen idazten, 1912an hain zuzen, eta 1929az geroz erredaktore buru izendatu zuten, berau izan zelarik. Garcilasoren ondoan, Molaren altxamendurako giroa prestatzen hasi zena. Gerrate ostean *Príncipe de Viana* aldizkariaren zuzendari egin zuten 1940-1943 bitartean. Erdal idazle ezaguna izan zen, eta bere lanik gorena *Nere elaberria* izan omen zen —Bartzelona, 1930—. Gerra bitartean Arabako gobernadore zibilarre-na bete zuen, eta frankismo garaian, eta Arruerekin gertatu antzera, Euskaltzaindiaren berregitea errazteko euskaltzain oso izendatu zuten 1941ean, nahiz eta bere bizitza osoan euskarazko lan bakarra taxutu, 1932an, *Panpi-na* izenburuko antzezlan hain zuzen ere.



etorri ahalean

Patziku Perurena



Plazer bila

Astekari batean leitetako galde-erantzun honetantxe, brizt, atera zait plazerra:

- Plazerra garrantzi handiko kontzeptua da zuretzako, ezta?

- Bai horixe. Gizakiaren baliorik gorena baita nere idurrituan. Izadiarekiko oharren biziari eta atsegin beteari erabat lotua baitago. Izpiritu modurik ederrena da hori, eta ezin duzu plazera gisa baizik bizi. Horren alderantzian, asperdura da gizakiaren aztarnarik hilgarriena. Esan liteke, izpiritu plazera bilatzaile horren minbizia dela asperdura, nolabait esan, hilik bizi izatea bezalatsu. Hilik bizitze horren kontrako txertoa litza-ke kultura, deus izatekotan: izpiritu plazera bilatzailea erne zaintzea.

Betidanik izan zait zentzagarri, neure inguruko jendeak plazerra zertan bilatzen duen erreparatzea. Zenbat diskusio neure aurreneko andregai eder gizartezale harekin! Alferriak ordea, atzenerako neure baitan bukatzen bainuen.

Gizarteko sare ttipi gorde guziak, libertsio itxuran gu aspertzeko ipiniak daude, eta sare zerratu horien hari tarte hutsetatik begiratzen ikastea da, nork bere argibidea eta plazera partikularra harrapatze bide bakarra. Plazer modu horrekin apenas egingen dizun inork komertziorik. Plazer horixe baituzu gizona duin egiten duen aztarnarik sotile-na.

Zinezko plazerra, sozializatze, konpartitze, gauzarik zailena dela iduritu izandu zait. Seguru aski, horregatik hitz egingen dute horren guti erlijioek, telebistek, burtsak, aldizkari pornografikoek eta beste eguneroko pizti horiek zinezko plazerraz. Hain du nork bere, izan ere, zinezko plazera hori, non ezin den inolaz ere komertzializatu.

Konpartitu litekeen plazera

klase asko saltzen da, noski, munduan, eta erosi beste horrenbestexa. Baina, hirugarren mailako plazerrak iduritu izan zaizkit horiek niri: ordainetan nazka eta nekea beste-rik ez dakarten plazera kaxkarak. Hala eta guzi, jenderik gehiena, plazera klase xixtrin horiekin xoratzen da. Ez du gogorik aski, bere plazera partikularrik bilatzen hasteko ere. Gehiago esanen nuke: ez dela konturatu ere egiten, beste plazera partikularrik badenik ere.

Kotxetan, ardotan, jantzi-tan, gorputzetan, edo beste zernahi gauzatan bezala, jendeak kalitate onskoa bilatuko balu bere plazerretan, arrunt lotsaturik eta gorriturik geldituko litzateke egunero kontsumitzen duen plazera kalitate kaxkarraz ohartzean. Uii uii... zenbat zintzo jator eredu-garri ustekok ez ote luke galdurik ikusiko bere burua!

Plazerraren historia egingen balitz, gizonak ezerezaren gainean sortutako oinaze absurduaren ordain gisako kontsolamendu izatetik apenas pasako litzak bere plazerrik nobleena ere. Hortatik atera kontuak, hoberena jota ere, zeinen kalitate eskaseko plazerra kontsumitzen dugun; zeren bizi, apenas bizi dugun plazera partikularrik.

Ezin naiz munduko beste izakien bizitzan sartu, baina iduritzen zait gizona dela biziari berez darion plazerra jasan ezin duen izakirik kaxkagorrena, eta horrexegatik asmatu behar izan duela oinazea: bere burua aldrebesteko; plazerretik aienatzeko, alegia.

Oi plazerra! Zergatik akabatzen zara beti zeure baitan? Zergatik ez duzu inolako heldulekurik? Zergatik ez duzu oroimenik, oinazeak bezala? Zergatik ez zara ez gorputz ez izpiritu? Zergatik zara hain iheskor? Zergatik nabil ni, zu harrapatu nahian? Zergatik, ezerezetan bazara ederfen?

Ziria

• Motxorrosolo •

Senta Gabela


HELBURU ZEHATZ BATI ERANTZUTEN OHI DIOTEN MUGIMENDUEN ARRAKASTA, ANITZEN BIZIPOZ BAKARRA. Senta Gabela-koa gure Hegoaldean entseatzeko deia egin zaigu. Arrazoiak andana dira egun, baina Corella izan daiteke erromerien hurrengo jomuga.

Patxo Abarzuza

LIBURU AZOKAREN ANTOLATZAILEETAKO BAT

«Liburuaren merkaturaren aldaketa sakona gertatzen ari da»

Urteetan aritu da Iruñeko Liburu Azoka antolatzen, beste liburu-saltzaile gutxi batzuekin batera. Aurtengoa, ikuspuntu ekonomikotik «oso ona» eta partaidetzaren aldetik «oso polita» izan dela dio. Larritzat jotzen du, ordea, egun dagoen irakurtzeko ohitura falta, eta liburu salmenten etsai nagusitzat jotzen du. Gogor kritikatzeko, halaber, prezioak liberalizatzeko proposamena.



soslai

AURTEN 19 LIBURU-DEN-
dak parte hartu dute
ekainaren 1, 2 eta 3an Gazte-
lu plazan antolatu den Libu-
ru Azokan, iaz baino bi gu-
txiago. Hiru egunetan
15.000-20.000 liburu bitarte
saldu dituzte.

■ Nolako emaitzak lortu di- ra aurtengo Liburu Azo- kan?

Aurtengo Liburu Azoka oso
ona eta polita izan da, bai lor-
tutako emaitza ekonomikoa-
gatik, bai etorri den jende ko-
puruagatik; gainera, bi gau-
zak gehienetan parean joaten
dira. Eguraldiak eragin han-
dia izaten du, eta aurtun asko
lagundu digu. Oro har, azo-
kak iraun duen hiru egunetan
bertan izan diren liburu-den-
dek 15.000-
20.000 liburu
inguru saldu di-
tuzte. Benetan
azoka ona izan
da.

■ Zergatik izan du horrelako arrakasta?

Agian, Libu-
ruaren Egunak
ez zuelako
arrakastarik
izan. Estatuan
egun batean
antolatu zen,
Euskal Herrian
beste batean, eta nahaspila
hori eragozpen bat izan zen.
Iruñean bi egunetan egin
zen, eta formula horrek ez
zuen ondo funtzionatu. Bes-

talde, iazko azoka ondo hasi
zen larunbatean, baina gero
Ynestrillasen bisita zela-eta
giroa okertu egin zen eta ez
genuen ezer saldu. Dena den,
oraingoz leku aproposena
Gaztelu enparantza bada ere,
hemendik gutxira txiki galdi-
tuko da; agian, arkupeetan
eta enparantza erdian ere ipi-
ni beharko dugu.

■ Dena den, askotan esaten da irakurtzeko ohiturarik ez dagoela.

Eta egia da. Estatuko esta-
tistiken arabera, familia ba-
koitzak urtean liburu bat
besterik ez du erosten. Eus-
kal Herrian batez bestekoa
bikoitza bada ere, oso indize
txikia da. Eta hori azken ur-
teotan batez bestekoa igo de-
la kontuan har-
tuz. Herri bate-
an ez
irakurtzea gi-
zarte osoaren
arazo da; larria,
gainera, eta
erakundeek
sustatu egin
beharko lukete
irakurtzeko za-
letasuna, haien
erantzukizuna
baita. Oztupoa
prezioa ez dela
argi dago, mila
pezetan eros

daitekeelako liburu bat, eta
dirurik gastatu nahi ez duena
liburutegetara joan daiteke-
elako, baina, hala ere, jende-
ak ez du irakurtzen.

Patxo Abarzuzak 43 urte ditu eta 28 daramatza liburuak saltzen. Iruñean
jaioa, haurra zenetik bizi izan da liburuaren munduan murgilduta. «Nire
gurasoek El Bibliófilo denda zuten Karlos III.a hiribidean», adierazi du.
Handik, Xalbador liburu-dendara pasatu zen hau sortu zenean,
orain dela 16 urte.

Irakurle sutsua, harentzat irakurketak batez ere «atsedena ematen du», eta
liburu baten azalak irekitzeak askatasun kutsua ere badu; «sarritan esan den
bezala, errealtatean egin ezin dituzun gauzak egiteko aukera ematen dizu,
beste pertsona bat bihurtzen zarelako». Bere ustez, irakurketa ekintza erabat
berekoa da, «irakurtzen dugu geuretzako, gustatzen zaigulako, eta ez
duenak irakurtzen, hor konpon».

Urteetan parte hartu izan du Iruñeko Liburu Azokaren antolakuntzan, eta
ezagutu ahal izan ditu ekimen horrek izan dituen gorabeherak. Nafarroako
Liburu Saltzaileen Elkarte kide da aspalditik.

■ Zein da liburu merkaturaren egoera?

Orain aldaketa sakona gertatzen ari da komunikazio
teknologia berrien eraginez. Hasi-
era batean, multimediar
lotutako gaiak liburuetan
ateratzen hasi ziren, baina
ondo saldu diren arren ez du-
te izan espero zen arrakasta.
Orain, euskarri berriak azter-
tzen hasi dira, liburu elektro-
nikoa edo edizio zuzena deri-
tzona. Azken horrekin, edo-
nork jaits dezake liburu bat
Internetetik eta bere inprimagailuan inprimatu. Bes-
talde, jadanik atera da taula
elektronikoa, haurrei zuzen-

dutako tresna. Horrek biltzen
ditu sakelako telefonoa, joko-
ak eta testuak kargatzeko
tresna. Hori pentsatu da ba-
tez ere eskola liburuak orde-
katzeko, baina baliteke he-
mendik urte batzuetara za-
baltzea. Eta bi gauzak
larritzen gaituzte: nola erabi-
liki diren tresna horiek eta
non salduko diren, liburute-
getan saldu beharko bailira-
teke.

■ Baina gero eta liburu gehiago argitaratzen dira, ezta?

Bai. Sal daitezkeen baino
askoz ere liburu gehiago ate-
ratzen dira. Eta izugarritzko

kontraesana gertatzen da: oso
gutxi irakurtzen da, eta
100.000 liburu berri baino
gehiago ateratzen dira urtero
merkatura; gu ezin saldu ibil-
tzen gara. Normalean, desore-
ka hori konpontzen da liburu
horiek Hego Amerikan merke
salduz. Dena den, susmatzen
dugu askotan liburuak ez di-
rela iristen eta zuzenean itsa-
sora botatzen direla, argitale-
txeentzat merkeago delako
botatzea, Ameriketara era-
man eta prezio erdian saltzea
baino.

■ Liburu-saltzaileen beste larritasun bat da prezioak liberalizatzeko proposa- mena.

Prezioen liberalizazioak
merkaturak gutxi batzuen es-
kuetan uztea ekarriko luke,
eta, horren ondorioz, eskain-
tzaurre murrizketa. Saltoki
handiek edo estatu mailako
sareek produktua merkatur-
ko aukera dute, baina txikiak
ez. Liberalizazioarekin mer-
katu gehiena hartuko lukete
haiek, eta min handia egingo
lizkiekete txikiak. Bestalde,
neurri horrek irizpide nagusia
dirua izateko arriskua dakar,
eta, nire ustez, hezkuntza li-
buruak irizpide didaktikoare-
kin aukeratu behar dira.

→ Eva Aranguren



Nafar Kronika

Daniel Urrutia

Ixo

Futbola negozio «borobila» dela; hogeita bi jokalarri pijo eta diruzalaren norgehiagokak jendea alienatzen duela; futbolaz haratago bizitza badagoela; futbolarri langile arruntari soldata ordainduko ez diola; futbol taldeetako lehendakariak gangsterrak direla; jarrera militarista eta sexistak bultzatzen dituela...

Ixo, faborez. Alde batera egin, sermoilari. Erretolika gerorako utzi, intelektual. Laga une hauetako poztasuna bizitzen. Akaso, berte momentu batean, onar litezke goiko arrazoi guztiak, baina, orain... Gora Osasuna! Gora Iruñea! Eta gora Nafarroa! (Angel Luis jokalarri kanariarrak oihukatu zuen gisara. Alex Fernandezek Gora Euskal Herria eta Visca Catalunya gehitu zien aurrekoiei).

Panfletismoa egiteko tenorea da. Osasunaren igoera nafar guzien lorpena izan da. Egunotan denok gara gorritxoak eta denok egon behar genuke kontent Nafarroaren kirol ordezkaria zer baiten lehen mailan dagoelako. Gogoia halako ttikieriekin zikindu nahi ez duenak, egin ez dezala. Baina mingaina, geldi. Ez euforia moteldu. Gorritxoak (nafarrak) gara eta harro gaude.

Egun, Osasuna da nafarrak gehien batzen dituen hitza. Eta hori ez da nolanahiko gauza. Muturrak baloi baten inguruko kontuetan batzeak berebiziko garrantzia du. Nafarren gehiengo zabala zer baitetan ados jar daitekeela erakusten du. Futbolarri politika eramaten den modu berean, futboleko kohesio ahalmena politikaren zelaira eramaterik ba ote dago?

Baina, barkatu, serioegia da aitzineko bortz esaldietakoa. Osasuna, jaia, alkohola eta ska. Bertzerik ez dugu behar orain. Oe, oe, oe.

KONTZERTUAK

► **Zangoza:** Pop-rock Lehiaketa-ren baitan, gaur Pottor's taldeak Espejo tabernan joko du, 21:30ean, eta Bol taldeak, 2 Caballos tabernan, 23:00etan.

► **Bera:** Lehendabizikoz musika esperimentaleko jaialdia antolatu dute Berako musikariek. Gaur eta bihar musika elektronikoa eta esperimentalean nazioartean punta-puntakoak diren hainbat musikari igaroko da kultur etxetik. Ortziralean, 21:00etatik aitzinera, Sandra & Underwood (Londres-New York), Zulo Beltza (Bartzelona-Bera), Francisco Lopez (Madril) eta Amy Denio (Seattle) ariko dira. Argentinatik, Internet bidez, Jorge Arok kontzertua eskainiko du. Larunbatean, 21:30etik aitzinera, Mass, Eardrum (EEBB), Evol (Austria), Un Caddie Renverse dans l'Herbe (Katalunia) eta Voodoo Muzak (Euskal Herria) taldeak ariko dira.

► **Etxarri-Aranatz:** Igandean Numidia talde multietnikoak kontzertua eskainiko du herriko plazan, 19:30ean.

BERTSOLARIAK

► **Makea:** Gaur Iparraldeko VIII. Eskola Arteko Bertsulari Txapelketako finala egingen dute pilota plazan, 10:45ean; Amets Arzallus, Sustrai Kolina, Xumai Murua, Miren Artetxe eta Enertiz Zabaleta ariko dira.

ANTZERKIA

► **Urdazubi:** Bihar, larunbatarekin, Sambhu Teatro taldeak

Puffen mundua antzezlan taularatuko du frontoian, 21:00etan.

ERAKUSKETAK

► **Burlata:** Puri Lozanoren margolanak daude ikusgai kultur aretoan (Joaquin Azkara, 1), hilaren 18 arte.

► **Bera:** Astelehenetik hilaren 25 arte, Labiaga Ikastolaren urteurrenaren kariatara, 25 urteotan bilduriko argazkiekin erakusketa antolatu du ikastolak. Eguneroko dago ikusgai, kultur etxean, 18:00etatik 20:00etara.

BESTELAKOAK

► **Berriozar:** Igandean Dantzari Txiki Eguna ospatuko dute herrian. Goizeko hamaiketan Tuter, Lizarra, Bera eta Berriozarko taldeek desfilea egingen dute Eguzki enparantzatik eta Lantzeluze frontoitik abiatuta. Haiekin batera erraldoi eta buruhandien konpartsa eta zantzar txikia joanen dira. 12:30ean talde guziek dantzatzeko dute Eguzki enparantzan.

► **Burlata:** Bihar eta etzi izanen

dira Axular elkartearen Kultur Asteko egun handiak. Bihar, arratsaldean, mus (16:30), sokatira (17:30) eta igel (19:30) txapelketak egingen dituzte. Gauean, zezen suzkoa, herri txistorrada, zinemaldia eta akordeoi musika. Igandean, 13:00etan, Eki-lore 2000 saria emanen diote Euskalerrri Irratiari eta, ondoren, Larratz taldearen dantzak izanen dira ikusgai. Txintzarri fanfarearen musikaldiak emanen dio akabera asteari, 17:00etan.

INAKI VERGARA



Azkena

Osasunari igoera ez zaio Caritasen tonbolan tokatu. Irudiko txartel saltzaile osasunazaleek ez dute tranparik egin, ez diete Osasunakoei txartel markaturik eman. Nafarroako lehen futbol taldeak zinez borrokatu behar izan du Espainako Lehen Mailara igotzeko. Eta zale gorritxoek behar bezala ospatu dute aste osoan. Baita txartel saltzaileek ere. Nahikoa da. Iruñeak su-etena behar du. Sanferminetako eskaileraren seigarren maila gehiegixko izan da. Har dezagun atsedena, uztailaren 6a arte bederen. Izan dadila goikoa Osasunaren inguruko jai giroaren azken irudia. Oraingoiz...